

«LEZOKO HAURREN IZENAK 1980 - 1989 ARTEAN»

Beti egon dira modak, bai Euskal Herrian eta baita mundu zaba-lean ere. Moda hauek era askotakoak ian daitezke: jazkerazkoak, bizimoduzkoak, elikadurari dagozkionak, ideiekin lotutakoak, hizkerazkoak... Eta azkene-koarekin loturik doan izen jartze edo ba-taiatzearena. Euskal Herrian, bertakook erabili izan ditugun izenak, modaren edo egoera sozio-politi-ko-kulturalaren arabera izan dira.



Badirudi izen zaharrenak izadiatik ateratakoak direla: Zuhaitz, Erreka, Ibai, Laino, Itsaso, Loretxo, Enara, Ekaitz, Harkaitz, Haritz,... baita gure mitologia zaharretik sortutako izen ugariak ere: Ortzi, Sugaar, Iurtziri, Mari, Mikelats, Atarrabi, Amalur,... Toponimikoek, toki izenetatik hartutakoek alegia, beren garrantzia eduki zuten ere, halanola: Endara, Endai, Bizkai, Lezo, Andion,...

Baina VIII. mendetik aurrera, kristau erlijioa inposatu zigutenetik hain zuzen, izen hauek bazterturik, galerazirik, gelditu ziren, eta beren ordeztu, judu-latino kutsuko kristau izendegikoak azaldu eta ugaritu egin ziren gure artean. Baina gure artean mende luzeetan egon direnez, bere aldaketak jasan dituzte, beste modu batez esana, euskaldundu egin dira. Esate baterako: Joxe, Maritxu, Jexux, Bixente, Iurgi, Pello, Antton, Luix, Endrike, Droke, Inaxio, Aingeru, Errodrigo,...

Gero etorri zen Sabino Arana Goiri, eta gizartea euskaldundu nahian, edo agian erdal kutsua zuen guztia baztertu grinez, bere «Ixendegia» kaleratu zuen 1898. urtean, non azaltzen diren izen gehienak berak asmatutakoak diren, balizko euskal lege fonetiko batzuei jarraituz moldatutakoak. «Ixendegia»-k ospe handia hartu zuen euskaldunon artean, eta honela sabinari izenak tokia kendu zieten aurretik erabiltzen zirenei. Gonbara ditzagun aurreneko izenak Sabinok sortu eta zabaldu egin zituenekin:

KRISTAU TRADIZIOKO EUSKAL IZENAK.-

Joxe
Maritxu
Jexux
Bixente
Iurgi
Pello, Peru
Antton
Luix
Endrike
Iñaxio
Aingeru
Joakin
Joanes
Joxepi

SABINO ARANAK SORTUTAKO IZEN BERRIAK.-

Joseba
Miren
Josu
Bingen
gorka
Kepa
Andoni
Koldo(bika)
Endika
Iñaki
Gotzon
Jokin
Jon
Josebe

Baina hemen ez zen dena bukatu, abertzaletasunak aurrera jo bait zuen, eta berarekin batera euskal izena jartzeko zaletasuna. Zoritxarrez euskaldunon gainean zeuden orduko arrotz legeek debekatu egiten zuten euskal izenen erabilpen ofiziala, hala eta guztiz ere, eta arrotz izendegitik aldendu nahiean, Primo de Rivera diktadore espainiarrak amahirjinen izenak legeztatzen zituen legea atera zuen bezain pronto, Euskal Herria osoa, Arantza, Begoña, Izaskun, Koro, Idoia, Estibalitz, Olatz, Liernia,... eta hamaika eta hamaika holakoz josi zitzai-gun.

Gaur legeak, alde hortatik, guztiz zabalak direnez, era guztietako izenak onartzen dira, kristauak eta jentilak, zaharrak eta berriak, beltzak eta gorriak,.... Hala ere Euskal Herria bitan banaturik dago arlo honetan ere, erdak eta euskal izenen artean alegia. Lezon, beste herrietan bezalaxe, banaketa honek bizi bizirik darrai. Ikus ditzagun zeintzuk eta nolakoak izan diren 1980 eta 1989 urteren artean, biak barne direlarik, gure seme-alabak bataiatzeko erabili izan ditugun izenak. Osora 707 haur inguru.



EUSKARAZKO IZENAK (1)

<u>GIZONEZKOAK</u>		<u>EMAKUMEZKOAK</u>	
Izena	Zenbat aldiz	Izena	Zenbat aldiz
Xabier	18	Ainara	13
Aitor	17	Amaia	9
Jon/Ion/Yon	17	Eider	8
Mikel	17	Naiara	8
Haritz/Aritz	14	Ane	7
Asier/Hasier	13	Oihana	7
Iker	9	Eduarne	7
Imanol	9	Idoia	7
Iñaki	9	Maider	7
Eneko	8	Nere/Nerea	6
Ander	7	Ainhoa	5
Gorka	7	Elixabet(e)	5
Jon Ander	5	Haizea/Aizea	5
Unai	5	Itsaso/Itxaso	5
Alain	4	Lorena	5
Arkaitz	4	Naroa	5
Ibai	4	Maialen/Maddalen	5
Igor	4	Aintzena	4
Joseba	4	Ekiñe/Ekhiñe	4
Lander	4	Irati	4
Sarai	4	Jone	4
Alexander	3	Leire	4
Anaitz	3	Miren	4
Beñat	3	Estitxu	3
Ekaitz	3	Iratxe/Iratze	3
Garikoitz	3	Izaskun	3
Julen	3	Izaro	3
Oier	3	Jaione	3
Urtzi	3	Maite	3
Eñaut	2	Aitziber	2
Gurutz	2	Amagoia	2
Iban	2	Begoña	2
Ioritz	2	Enara	2
Abel	1	Estibalitz	2
Adur	1	Joana	2
Ager	1	Josune	2
Aingeru	1	Larraitz	2
Andoni	1	Lohitzune	2
Antton	1	Lorea	2

EUSKARAZKO IZENAK (2)

<u>GIZONEZKOAK</u>		<u>EMAKUMEZKOAK</u>	
Izena	Zenbat aldiz	Izena	Zenbat aldiz
Belai	1	Maitane	2
Egoitz	1	Nahia	2
Enaitz	1	Olaia	2
Enaut	1	Olatz	2
Endika	1	Ziortza	2
Erika	1	Garazi	2
Gogor	1	Agurtzane	1
Ibon	1	Aielen	1
Inar	1	Alaitz	1
Ingar	1	Alazne	1
Inko	1	Amaiur	1
Ipar	1	Amalur	1
Irandatx	1	Arantxa	1
Jagoba	1	Aurkene	1
Kepa	1	Argine	1
Lohitzun	1	Bakarne	1
Maiari	1	Dorleta	1
Mederi	1	Deiene	1
Nasir	1	Eder	1
Oroitz	1	Idurre	1
Paul	1	Igone	1
Txomin	1	Ilazki	1
Ugaitz	1	Itziñe	1
Urko	1	Nahikari	1
Zugaitz	1	Nekane	1
		Onintza	1
		Saioa	1

ERDERAZKO IZENAK (1)

<u>GIZONEZKOAK</u>		<u>EMAKUMEZKOAK</u>	
Izena	Zenbat aldiz	Izena	Zenbat aldiz
(Fco.) Javier	10	Vanesa	8
David	6	Cristina	7
Ruben	6	Maria	5
Jonathan	5	Eva	4
Daniel	4	Laura	4
Jorge	3	Tania	4
Juan	3	Maria Isabel	3
Manuel	3	Natalia	3
Iván	3	Sandra	3
Sergio	3	Yeshika	3
Alberto	2	Ana	2
Andrea	2	Beatriz	2
Carlos	2	Gema/Gemma	2
Pedro	2	Lidia	2
Ignacio	2	Margarita	2
Jesús Mari	2	Mari Carmen	2
José Luis	2	Mari José	2
Juan Mari	2	Monica	2
Oscar	2	Raquel	2
Santiago	2	Sonia	2
Victor Manuel	2	Soraya	2
Adrian	2	Tamara	2
Alvaro	2	Verónica	2
Andrés Manuel	2	Adriana	1
Arturo	2	Aida	1
Christian	2	Almudena	1
Enrique	2	Anabel	1
Fernando	2	Asunción	1
Francisco Miguel	2	Bárbara	1
Gregorio	2	Carmina	1
Gonzalo	2	Concepción	1
Jaime	2	Elvira	1
José	2	Esmeralda	1
José Antonio	2	Esperanza	1
Juan Antonio	2	Erica	1
Juan Carlos	2	Fátima	1
Juan José	2	Goreti	1
Juan Manuel	2	Irene	1
Juan Miguel	2	Ivanca	1

ERDERAZKO IZENAK (2)

<u>GIZONEZKOAK</u>		<u>EMAKUMEZKOAK</u>	
Izena	Zenbat aldiz	Izena	Zenbat aldiz
Juan Pedro	2	Jenifer	1
Luis Mariano	2	Jorel	1
Luis Miguel	2	Juncal	1
Marcos	1	Kesia	1
Melchor	1	Lara	1
Miguel	1	Maria Dolores	1
Miguel Angel	1	Mari Paz	1
Pablo	1	Marisa	1
Ramón	1	Mireia	1
Raúl	1	Nadia	1
Roberto	1	Odela	1
Tomás	1	Pamela	1
		Patricia	1
		Rebeca	1
		Rosa Mari	1

KONKLUSIO GISA

Amaitzeko zenbait hitz eman daitezke ikusitako zehazkizueni buruz. Lehen-dabiziz, esan beharra daukagu historiaren haizea euskerazko izenen aldetik dagoela, erderazkoekin dagoen kopuruen diferentzia nabarmena bait da. Euskerazko izenei dagozkie, izen klasikoak buruan daudela aipatzekoa da, hala-nola: Xabier, Jon, Mikel, Imanol,... hala ere zenbait izen azkeneko garaietan horren klasiko ez zirenak, gaur klasiko bihurturik dauzkagu: Aitor, Asier, Haritz,... eta buruan ditugu ere, aurrekoekin nahasturik. Euskerazko emakumezkoen izenekin ez zaigu gauza bera gertatzen, izen klasikoenak (Ane ezik) ez bait zaizkigu zerrendaburuan agertzen, bestelako izenak nagusitzen zaizkigun bitartean: Ainara, Amaia, Eider, Naiara, Oihana,...

Aipatzekoa da, emakumezko izenik klasikoenak orain arte, Begoña, Arantxa, Miren,... ia desagerturik daudela.

Erderazko izenei dagokienez, hauxe esan genezake: gizonezkoei dagokienez, klasikoenak daude zerrendaburuan, halanola: Javier, David, Daniel,... eta izen konposatuak oso ugariak direla, euskerazkoekin ia gertatzen ez zena (Juan Manuel, José Antonio, Luis Mariano,...) Aipatzekoa da zer den «José» izenarekin gertatzen dena, behin bakarrik erabiltzen bait da. Emakumezkoen artean kanpoko kutsua duten izenak nagusitzen dira: Vanesa, Tania, Tamara,... Baina klasikoenek buruan darraite: Eva, Maria, Cristina,...

Erderazko izen hauen artean azaltzen dira euskeraz ez dauden guztiak, bai espainerazkoak, bai gailegoerazkoak, bai arabiar izenak, edo anglosajoiak, eta bai bestelakoak. Zerrenda luzea da: Jonathan, Iván, Christian, Andrea, Yeshika, Soraya, Tamara, Aida, Mireia, Ivanca, Jenifer, Jorel, Kesia, Nadia,... Hauetako asko eta askok izen bitxi xamarra dutelarik.

Lezoko haurren izenen azterketatxo hau oso ondo letorkiguke Lezoko egoera linguistiko-soziala ezagutzeko, erradiografia bat bailitzan. Esan beharra dago bi hizkuntzetako izen arteko banaketa ez dela errealitate linguistikoarekin bat etortzen, baina bai lezoarron hizkuntz borondatearekin, eta azken hau da garrantzitsuena, Lezo eta Euskal Herri osoa berreuskalduntzeko behar dugun faktorerik nagusienetakoa bertako biztanleriaren borondatea bait da. Biharko egunak edukiko du azken hitza.

— KARLOX BARRENTSORO —